leioa
Udal aldizkaria
2005 · **36. Zbk.**
LEIOA ELIZATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE LEIOA
www.leioa.net



# Parking, plaza, frontón y equipamiento social para **Pinueta**

## Apirila Euskeraz Blai

## Mejoras urbanas en Txorierri

## Berdintasunaren Plangintza



HOTEL
# ARTAZA
JATETXEA

Bodas, los mejores menús.
Aparcamiento gratuito.
Suite Nupcial.

**Avda. de los Chopos, 12 · 48990 Getxo (Bizkaia)**
**Tel.: 944 912 852 · Fax: 944 912 934**



# **Artatzako 25.** urtemuga

El Colegio Público de Artatza-Pinueta cumple 25 años. La Asociación de Madres y Padres y el Claustro de Profesorado, esta organizando una serie de actividades para el próximo 4 de junio. Juegos, talleres infantiles, payasos y la apertura de la taberna Artatxo, amenizaran la jornada festiva.

Artatza-Pinueta ikastetxe publikoak 25 urte beteko ditu aurten eta datorren ekainaren 4an, hain zuzen ere, ospatuko du bere hogeita bosgarren urteurrena.

Duela 25 urte, 1980an, alegia, Artatza-Pinueta ikastetxeak bere ibilbidea hasi zuen irakaskuntzaren munduan. Hezkuntza-arloan egin duen lana funtsezkoa izan da gure komunitatearen bizitzan baita hiru hamarkada hauetan ia Artatza-Pinuetan ikasi duten lagunen bizitzan ere. Horregatik guztiagatik, Guraso Elkartea eta Irakasleen Klaustroa 25. urteurrena ospatzeko zenbait jarduera antolatzen ari dira. Ekainaren 4an goizez, haurrentzako jarduera ugari egongo dira, hala nola, gaztelu puzgarriak, rokodromoa, saskibaloi eta futbol partidak, eta abar. Era berean, egun horretan



jolasak, haurrentzako tailerrak, pailazoak eta Artatxo tabernaren irekiera izango ditugu jai-giro handiz. Gainera, Artatza-Pinueta ikastetxearen 25. urteurrenean herri-bazkaria eta guzti antolatuko dugu bertaratuko diren guztientzat. Bazkarira etorri edota egitarauaren berri izan nahi baduzue, deitu lasai asko telefono-zenbaki honetara: 94 480 7080 edo beste honetara: 94 463 8429 eta pozik lagunduko dizuegu.

Hala eta guztiz ere, eta eguna hurbildu ahala, ikastetxeak egun horretarako antolatuko duen jaiaren eta jardueren berri gehiago emango dizue. ■

Si queréis apuntaros u obtener mas información sobre la **comida popular** que se celebrará a las **15:00h**r en la **taberna Artatxo**, podeís llamar a los teléfonos, **94 480 70 80** y/o al **94 463 8429**

www.leioa.net

Argitaratzailea/Edita:
**Leioa Elizateko Udala**
**Ayuntamiento de la Anteiglesia de Leioa**
Elexalde, 1
48940 Leioa · Bizkaia

Zenbaki interesgarriak:
Teléfonos de interés:

Leioako Udala
**94 400 80 00**
Ayuntamiento de Leioa

Udaltzaingoa
**94 400 80 21**
Policía Local

Erregistro Orokorra
**94 400 80 20**
Registro General

Ibilgailuak
**94 400 80 27**
Vehículos

Bulego Teknikoa
**94 400 80 05/06**
Oficina Técnica

Kultur Saila
**94 607 25 78**
Área de Cultura

Kultur Leioa
**94 607 25 00**

Aterpe
**94 607 25 72**
Información Juvenil

Euskara Zerbitzua
**94 607 25 76**
Servicio Euskera

Pinuetako Udal Bulegoa
Pinueta Kultur Aretoa
**94 464 67 22**
Of. Municipal de Pinueta
Aula Cultura Pinueta

Udal Euskaltegia
**94 464 00 02**
Euskaltegi

Udal Kontserbatorioa
**94 463 86 83**
Conservatorio Municipal

Udal Kiroldegia
**94 400 80 59**
Polideportivo Municipal

Gizarte Ongizatea
**94 480 13 36**
Bienestar Social

# Programación **Kultur Leioa**

## "Apirila euskaraz blai"

### Antolatzaileak: Kultura Saila / Euskera Zerbitzua

Bai Leioan bai Kultur Leioak antolatzen dituen ekintzetan euskerak garrantzi handia dauka. **"Apirila Euskeraz Blai"** lemapean bultzadatxoa eman gura izan diogu, euskera arlo ezberdinetan erabiltzeko eta gozatzeko, musikan, antzerkian, zinean, hitzaldietan eta beste hainbat arlotan. Beraz apirileko programaketak euskera kutsu nabaria izango du, gure hizkuntzaren normalkuntzan lagunduz. Adin guztietarako ekitaldiak egongo dira, haurrentzako, gazteontzako eta hain gazteak ez zaretenontzako, etorri denok eta busti zaitezte gurekin.



**Musika**/Música

**Kontzertua**
**BIDE ERTZEAN**

Eguna: **Apirilak 1**
Ordua: **20:30h**
Lekua: **Auditorium Kultur Leioa**
Sarrera: **8 euro**

*BIDE ERTZEAN Deabruak Teilatuetan taldearen alternatiba akustiko gisa sortu ziren, 1998ko udaberrian "Dana lanbrotute ikustot" ikuskizunean parte hartzean. Susako poetekin batera (Aranbarri, Otamendi, Izagirre..) happening deigarriak egin zituzten. Haien testuak rockera hurbildu zituzten, poesia eta belaunaldi baten musika uztartuz, beat belaunaldiko poeta haiek San Franciscon eta Liverpoolen rock and rollarekin egin zituzten saioak eta harrezkero egindako beste asko aurrekari direla.* ■

**Musika**/Música

## Kontzertua
## HIRU TRUKU
### Bixente Martinez, Ruper Ordorika eta Joseba Tapia

Eguna: **Apirilak 15**
Ordua: **20:30h**
Lekua: **Auditorium Kultur Leioa**
Sarrera: **8 euro**

*HIRU TRUKU osatzen dute BIXENTE MARTINEZ, RUPER ORDORIKA eta JOSEBA TAPIAk. Hirukotea 1994ko hasiera aldean sortu zen. Kideetako bakoitzak euskal musikaren alderdi diferenteetan jarduten du.*

*Hirukotea osatzeko ideia sortu zen RUPER ORDORIKAk abesti tradizionalen molde zehatz batzuei buruzko afizio-pasioak bultzatuta bildutako material guztia bideratzea erabaki zuenean. BIXENTE MARTINEZek tresna-jole eta musikagilearen dohainak landu ditu gitarran, mandolinan eta bouzouki-an, herri-musikaren inguruan, batik bat Oskorri taldeko kide finko gisa; eta JOSEBA TAPIA, eskusoinu jole tradizionala, musika eta dantza tradizionalen molde batzuk berreskuratu nahi dituen mugimendu baten ordezkari gaztea da.*

*Horrenbestez, nolabait esatearren bategite naturala da. HIRU TRUKUren errepertorioa Nuevos Medios-ek "HIRU TRUKU" izenburupean argitaratutako bi CDetan agertzen diren abesti eta balada narratiboetan oinarritzen da.* ■




**Antzerkia**/Teatro



## MARKELIÑE
## Cuatro Corazones

Eguna: **Apirilak 8**
Ordua: **12:00h Ikastetxeerako** /dohan
**20:30h** /sarrerekin
Lekua: **Auditorium Kultur Leioa**
Sarrera: **10 euro**

*4* ***bihotz*** *Markeliñe-k sortutako lana da, aretoan antzezteko ikuskizuna, sormenaren baliabide den inprobisaziotik abiatuta sortu den lana; ikuskizun samurra eta delikatua. Obra kolorista, komikotasun eta ironia dosiekin.*

*Parke batean zitak, bilaketak eta okerreko topaketak gertatzen dira; lau pertsonaia maitasunaren bila. Igarotzen diren maitaleak, ezagunak eta ezezagunak, suizidak, gizon likitsak, emakume biziotsuak. Bikotekideak trukatzen dira sen oneko izpi batean, edo betirako elkartzen dira lokarri hautsiezinekin.*

*4 bihotz-en errealitatea eta irudimena nahasten dira. Bihotzak gorputzetik ateratzen dira ea loreak sugar bihurtzen dira. Magia, erakarpena, bilaketa. Ilusio zapuztuak, bihotza hautsiak eta amodio zailak.* ■

## **Euskal zinearen astea**/Semana del cine vasca

**2005eko apirilaren 11tik 17ra**
Egunero filma bat emango da, bi hitzaldi eta erakusketa bat

### Filmak

11 goizez* 10:00 – 12:00
**ILARGIAREN SEKRETUA**

12 goizez *10:00 – 12:00
**KIRIKU ETA SORGIÑA**

arratsaldez 20:00
**KE ARTEKO EGUNAK**

13 goizez* 10:00 – 12:00

**BIZITZAREN ARBOLA**

### Hitzaldiak

**Juanjo Elordui,**
UNIBERTSOLARIAK filmaren zuzendaria, aurtengo Goya sarietarako hautatua izan den animazio filma, eta gaur egun OLENTZERO 2 egiten ari da.

14 goizez* 10:00 – 12:00
**MOMO**

15 goizez * 10:00 – 12:00
**GEORGE ETA HERENSUGEA**

16 arratsaldez 19:00
**AUPA ETXEBESTE filmaren zuzendariekin "Euskarazko zinemagintzaren egoera gaur"**

20:30 Laburmetraiak
**TXOTX-40 EZETZ-TOPEKA AMUAK**

17 goizez* 12:00
**GEORGE ETA HERENSUGEA**

arratsaldez 17:00-20:00
**KE ARTEKO EGUNAK**

**Ikastetxeentzat sarrera dohanik**

Entrada gratuita para centros escolares

**SARRERA: 2 EURO**

**Astean zehar euskarazko filmen kartel erakusketa egongo da.**

Y durante la semana habra una exposición de carteles de películas en euskera.

**Informazio gehiago nahi baduzue, deitu telefono honetara: /** Para más información podeis llamar al teléfono:
**94 607 2578**

**Kontzertua**/Concierto

# BENITO LERTXUNDI

Eguna: **Apirilak 22**
Ordua: **20:30h**
Lekua: **Auditorium Kultur Leioa**
Sarrera: **12 euro**



BENITO LERTXUNDI Euskal Herriko musikaren historiaren zati da. Historia horren hasieraren, bilakaeraren eta sendotzearen zati. 40 urtean euskal kulturaren eragile guztien begirunea irabazi du, gure memoria kolektiboan bildutako irudiak gogora ekarri dituzten kantu eta sentimenduekin.

**1971**n bere lehen diskoa argitaratu zuen, kantariaren izena izenburu zuela: *Benito Lertxundi*. Bere lehen single-en bilduma izan zen, azken batean: bere lehen amodio- eta borroka-kantak, gitarraren laguntza soilaz abestuak, abesti herrikoiak eta berak sortutakoak uztartuz.

*Oro laño mee batek…*, bere lehen lan luzea **1974**koa da. Musikaren soiltasun bidetik jarraitzen badu ere, helduago eta landuagoa da. Lizardiren poemez gain, memoria kolektiboan iraun duten kantuak nabarmendu behar dira, esaterako *Herri behera* jota, edo Artzeren poema batean oinarritutako *Txori txikia* abestia.

**1975**ean *…eta maita herria, üken dezadan plazera* izenburuko lana argitaratu zuen. Arrakasta handia lortzeaz gain, funtsezko disko bilakatu zen: hor ageri dira Zuberoaren xarma eta mugaren aldi bietako Nafarroa.

**1977**an *Zuberoa / Askatasunaren semeei* disko bikoitza atera zuen. Zuberoarenganako amodio eta omenaldi adierazpen gisa har genezake disko hori.

**1981**ean beste disko bikoitz bat argitaratu zuen: *Altabizkar / Itzaltzuko Bardoari*. Orreagako gudua oinarri hartuta, Benitok euskal epikaren arrasto urriak hartu eta modu berezian landu zituen. Bigarren diskoan ezin ditugu ahaztu beste kantu kutun asko: *Oi ama Eskual Herri* edo *Nere herriko neskatxa maite*.

**1985**ean argitaratutako *Gaueko ele ixilen baladak* barnealdeko bilaketa eta ikerkuntza da, bere filosofia pertsonala azaltzeko bidea ematen diona.

Azkenik, *Pazko gaierdi ondua*, 1989koa, bere bilduma atera baino lehen argitaratutako azken diskoa da.

**1993**an, musikan hamarkada bi baino gehiago emanda, *Hunkidura Kuttunak* bilduma argitaratu zuen. Bi disko bikoitz dira, 46 abesti, horietako batzuk eguneratutakoak.

Azken diskoa, *Pazko gaierdi ondua* atera zuenetik 7 urte igarotakoan, 1996an Hitaz Oroit atera zen argitara. Urbeltz, Xalbador, P. Ramirez eta Lertxundiren beraren hitzak biltzen dituen disko honetan nabarmentzekoak dira Aingeru Irigarairen eta Martín Irizarren oroimenari dedikatutako hiru abesti.

Eta **1998**an, Tolosaldeko Kilometroak 98-ren antolatzaileek Benito Lertxundi, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Enrique Ugarte biltzea lortu zuten.

**Aurten zuzeneko lehen diskoa argitaratuko du. Disko bikoitza da "Zuzenean". 20tik gora abesti biltzen ditu, eta barnean luxuzko liburuxka luze-zabala du. Aparteko dokumentua, zinez.**

## **Haur antzerkia**/Teatro infantil

# MOMO

Eguna: **Apirilak 10**
Ordua: **12:00h**
Lekua: **Auditorium Kultur Leioa**
Sarrera: **3 euro**

*Argitaratu zenetik 30 urte igaro direnean, Momo Europako gazteentzako literaturaren klasiko bihurtu da.*

*Antzertirako moldaketa liburuaren isla zehatza da, bere helburu nagusiari dagokionean: DENBORA nola eta zein modutan sor eta gal dezakegun erakustea. Denbora alegia honen benetako protagonista da, Momo txikia aitzakia magikoa dela.*

*Momok beste inork baino hobeto daki entzuten. Oso pertsona gutxik dakite benetan entzuten. Momok hain ondo entzuten du, non bat-batean jende apalari ideia bikainak bururatzen zaizkion.*

*Izan ere, entzuten jakiteko denbora behar da, eta horixe da, hain zuzen ere, Momok soberan duena.*

Momo se ha convertido, a los treinta años de su publicación, en un clásico de la literatura europea destinada a los jóvenes.

La adaptación al teatro es fiel al libro en su propósito principal: cómo y de que manera podemos crear y perder el TIEMPO. El tiempo es el auténtico protagonista de esta fábula donde la pequeña Momo es el pretexto mágico.

Lo que Momo sabe hacer como nadie es escuchar. Muy pocas personas saben escuchar de verdad. Momo sabe escuchar de tal forma que a la gente sencilla se le ocurren de repente ideas geniales.

Porque para saber escuchar se necesita tiempo y tiempo es lo único que Momo tiene de sobra. ■

# Zine Apirila

## Zine Komertziala

SARRERA/ENTRADA: **4 EURO**
LUNES DÍA DEL ESPECTADOR
ASTELEHENA IKUSLEAREN EGUNA **3 EURO**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Larunbata | 2 | Sábado | 19:00 22:00 |
| Igandea | 3 | Domingo | 20:00 |
| Astelehena | 4 | Lunes | 20:00 |
| Larunbata | 9 | Sábado | 19:00 22:00 |
| Igandea | 10 | Domingo | 20:00 |
| Astelehena | 11 | Lunes | 20:00 |
| Larunbata | 23 | Sábado | 19:00 22:00 |
| Igandea | 24 | Domingo | 20:00 |
| Astelehena | 25 | Lunes | 20:00 |
| Larunbata | 30 | Sábado | 20:00 |
| Igandea | 1 | Domingo | 20:00 |
| Astelehena | 2 | Lunes | 20:00 |

## Zine foruma

SARRERA/ENTRADA: **2 EURO**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Asteartea | 5 | Martes | 20:00 |
| Asteartea | 19 | Martes | 20:00 |
| Asteartea | 26 | Martes | 20:00 |

## **Haur Zinea**/Cine infantil

SARRERA/ENTRADA: **3 EURO**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Igandea | 3 | Domingo | 12:00 17:00 |
| Igandea | 24 | Domingo | 12:00 17:00 |
| Larunbata | 30 | Sábado | 17:30 |
| Igandea | 1 | Domingo | 17:30 |
| Astelehena | 2 | Lunes | 17:30 |

# Mejoras urbanas en **Txorierri**

Leioako Udalak hiria hobetzeko lan batzuk adjudikatu ditu Txorierri auzoan. Adjudikatutako obrak osatzeko, auzoko Pasealeku ezaguna berrurbanizatuko da. Zehazki, zoladura aldatuko da, eta dauden barandak ordeztuko dira beste batzuekin, itxura lirainagokoak eta heltzeko errazagoak.

El Ayuntamiento de Leioa ha adjudicado obras de mejora urbana en el barrio del Txorierri por importe de más de 130.000 euros. Las obras consisten en reurbanizar la zona de entrada al barrio en el frente de acera de los portales numerados del 33 al 39. El proyecto plantea el cambio de pavimento, mejora de rasantes y niveles a través de rampas, sustitución de barandillas, así como la transformación del ultimo tramo de bajada, hoy un escaso jardín de nula utilidad, en un continuo de acera. Junto con ello las obras de mejora también contemplan el ensanchamiento de la calzada que discurre por el lateral izquierdo del número 33 y que conecta con la actual entrada y salida del barrio. Estas obras se ejecutarán garantizando su posterior engarce con las obras que en toda esa zona de entrada al barrio han de ejecutar los promotores que ahora están construyendo el edifico de VPO y su urbanización adyacente (plaza, aparcamientos y nuevos viales).



## Obra horiek martxoan hasiko dira, eta ustekabekorik ez badago San Juan jaietarako amaitzea aurreikusita dago

Las obras adjudicadas se completan con la reurbanización del conocido Paseo del barrio, que implicará el cambio de pavimento y la sustitución de sus barandillas por otras más esbeltas y accesibles.

Las obras mencionadas darán comienzo en el mes de marzo y su finalización, si no hay imprevistos, está prevista para fiestas de San Juan. Antes de esas fechas, el Ayuntamiento de Leioa también espera poder aprobar inicialmente la modificación del PGOU que va a posibilitar la creación de un área urbana en la zona baja del barrio al objeto de viabilizar la operación de una conexión mecánica entre el barrio y Lamiako, junto con un parque en la ladera. En estos momentos se está realizando el Estudio de Impacto Ambiental preceptivo para poder promover dicha modificación del Planeamiento municipal.

Esta inmediata modificación del PGOU complementa la recientemente aprobada en su fase inicial en el Pleno de febrero, por la que se habilitará un segundo acceso rodado al barrio que, bordeando la zona baja del parque de la ermita de Ondiz, conectará con la calle Independentzia, a la altura de la entrada al parking de la Ikastola Altzaga. ■

# Parking, plaza, frontón y equipamiento social **para Pinueta**

**Bizkaiko Foru Aldundiak Pinuetako Plan Bereziaren behin betiko onespena laster ebatziko du, hau da, lurrazpiko aparkaleku bat egiteari eta Pinuetako bizilagunek erabili eta gozatzeko esparru publiko berriak sortzeari buruz.**



La Diputación Foral de Bizkaia está presta a resolver sobre la Aprobación definitiva del Plan Especial Pinueta. Mediante este imprescindible proceso de elaboración de la Modificación de Planeamiento, el Ayuntamiento de Leioa quería viabilizar actuaciones de reforma urbana que permitieran desahogar el barrio de la presencia de vehículos en vía pública. Tras la fase de información pública, en la que se recogieron numerosas alegaciones y sugerencias por parte de vecinos y vecinas de la zona que abogaban por la no implantación de nuevas viviendas en el barrio, las autoridades municipales se decidieron por una propuesta que recogía exclusivamente la construcción de un aparcamiento subterráneo y la generación de nuevos espacios públicos de uso y disfrute general para vecinos y vecinas de Pinueta.

En este sentido, la propuesta que finalmente fue aprobada por el Ayuntamiento de Leioa y que se sometió a la Aprobación definitiva por parte de la Diputación, contempla la creación de un aparcamiento subterráneo de más de 260 plazas en un solar sin urbanizar de Gaztelubide.

Sobre el parking se habilita una plaza de uso público, con zona verde y rematada con una zona deportiva que incluye un frontón. Además de ello, se procede a reurbanizar toda la zona, con un replanteamiento de los viales y una ampliación de los itinerarios peatonales más próximos.

Finalmente, el Ayuntamiento de Leioa obtiene el dominio de la conocida como “casa del Guarda” (antiguo acceso trasero de la finca del Palacio Artatza), donde prevé la instalación de un equipamiento social al servicio del barrio.

El Ayuntamiento de Leioa espera que la aprobación de esta Modificación de Planeamiento que permitirá la materialización de esta actuación,

**Onetsitako proposamenean aurreikusita dago Gaztelubiden urbanizatu gabe dagoen orube batean 260 plaza baino gehiagoko lurrazpiko aparkalekua egitea.**



Jarduketa hori egiteko aukera emango duen plangintzaren aldaketa apirilean onartuko dela espero du **Leioako Udalak**. Horrela, 2005 urte honetan aldaketa hori kudeatu eta abian jartzeko beharrezko urratsak egingo dira. Hori egindakoan, Leioako Udalak azken urteotan egin izan dituen jarduketak –espaloien zoladurak berriro jartzea, kaleak berriro asfaltatzea, lorategi publikoak eta hiri-altzariak hobetzea– hiria berritzeko asmo handiagoko beste jarduketa batzuekin osatzea aurreikusi du, ibilgailu pribatu ugari biltzen dituen auzo hori gizatiarrago egiteko .

se produzca en el mes de abril, de modo que dentro de este año 2005 se den los pasos necesarios para su gestión y puesta en marcha. Una vez hecho, el Ayuntamiento de Leioa prevé poder complementar las actuaciones que estos últimos años esta llevando a cabo en materia de repavimentación de aceras, reasfaltado de calles, mejora de jardines públicos y de mobiliario urbano, con otras más ambiciosas de reforma urbana que permitan humanizar más un barrio con una alta densidad de vehículos privados. ■



# Internet sin cable en **Kultur Leioa**

**Iragan otsailaren 22tik aurrera Leioako udalak Euskaltelen laguntzarekin, internetera kablerik gabe konektatzeko aukera dohainik ematen du, Kultur Leioan eta Jose Ramon Aketxe eta Errekalde plazetan. Erabiltzaileek jarraitu beharreko prozedurari buruzko argibide zehatzak jasoko dituzte.**

Desde el pasado 22 de febrero, el Ayuntamiento de Leioa en colaboración con Euskaltel, da la posibilidad de conectarse a Internet sin cables de manera gratuita en Kultur Leioa y en las plazas Jose Ramon Aketxe y Errekalde. Leioa es el primer municipio vasco que oferta el servicio Wi-Fi de manera gratuita. Una buena oportunidad para que los leioztarras puedan acceder al mundo de las nuevas tecnologias y de la comunicacion.




**Leioa da Wi-Fi zerbitzua doan eskaintzen duen lehenengo euskal udalerria. Horrela, herritarrek, saretik nabigatu eta mezu elektronikoak bidali ahal izango dituzte, inolako kablerik behar gabe.**

Kultur Leioa pone a disposición de los vecinos y vecinas de Leioa ordenadores portátiles para conexión a Internet sin cables. Wi-Fi es una tecnología inalámbrica -sin cables- de acceso a Internet de banda ancha, que permite velocidades de acceso de hasta 54 Mbps. De esta manera, los vecinos y vecinas de la localidad podran navegar opor la red y enviar correos electronicos sin necesidad de cables.

El usuario puede utilizar sus propios equipos (PC, PDA o teléfono móvil con Wifi) o bien ordenadores portátiles que estarán a su disposición en Kultur Leioa. Cuando desee utilizar los ordenadores portátiles tanto en las instalaciones de Kultur Leioa como en las plazas José Ramón Aketxe y Errekalde, recibirá información detallada del procedimiento a seguir. Para ello, el Ayuntamiento de Leioa ha adquirido una decena de ordenadores que se prestaran los usuarios que asi lo requieran en Kultur Leioa

Por su parte, Kultur Leioa proporcionará 1 bono de 1 hora por persona y día. Tras rascar las casillas del interior del mismo y una vez abierto Internet Explorer en su equipo, tendrá que teclear el nombre de usuario y contraseña que aparecen en dicho bono. En Kultur Leioa se informara al usuario del servicio Wi-Fi y se tratará de resolver todas las dudas que se pudieran plantear

En el caso de los Amig@s de Kultur Leioa recibirán como obsequio 6 bonos de conexión gratuita

A este nuevo servicio, se le suma la incorporacion recientemente de ordenadores nueva generacion para las aulas de cultura de los barrios de Lamiako, Txorierri, Pinueta y San Bartolome. ■




- **0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.**
- **Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHtik.**
- **Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda.**
- **Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.**
- **Leioako *Ikastolen Elkartea-partaideko* ikastola bakarra.**

**BETIKO**
**IKASTOLA**

**Deitu eta informa zaitez inolako konpromezurik gabe.**
**Tlf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07 Fax: 94 464 22 05**
**Helbidea: Artatza auzoa 84**
**Helbide elektronikoa: leioa@ikastola.net**

**Informazioa gehiago gure WEB orrian:**
**www.ikastola.net , Ikastola zertan den atalean.**

# Leioa aprueba el **Plan de Igualdad de Oportunidades**

Leioako Udalak Berdintasunaren Plangintza aho batez onartu zuen otsaileko udal osoko bilkuran. Onartutakoaren arabera, egun emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak gero eta gehiago murriztu nahi dira gizarteko arlo guztietan.

El pleno del Ayuntamiento de Leioa aprobó por unanimidad el Plan de Igualdad de Oportunidades el pasado 23 de febrero, que garantiza la intervención de los poderes públicos en la consecución de una igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres real y efectiva. Todas las áreas municipales se involucrarán en este plan y el Servicio de Seguridad recibirá información actualizada en temas psicológicos, jurídicos y sanitarios para atender de un modo adecuado las denuncias de malos tratos y agresiones sexuales. El compromiso del personal municipal con esta política se concretará en el uso no sexista del lenguaje administrativo.

**Osasun arloan bizitzeko eta norbera ezagutzeko ohitura osasungarriak hartzea sustatu nahi da, emakumeek euren osasunarekiko interesa izatea bultzatuz. Horretarako, anorexia, bulimia eta HIESari aurre hartzeko kanpainak burutuko dira.**

En el ámbito deportivo se promoverá en los centros educativos la práctica sin segregación por sexo. Otras acciones irán encaminadas a fomentar la participación equilibrada tanto de niñas y niños como de mujeres y hombres en todos los sectores del sistema deportivo. Asimismo, se pondrán en marcha fórmulas de colaboración con los clubes y asociaciones deportivas para el impulso de equipos femeninos. En materia de urbanismo se fomentará la participación de las mujeres en la planificación del municipio. El plan incluye la atención a mujeres con cargas familiares y/o solas, evitando su precariedad económica y facilitando su integración en la vida social y laboral. Entre otras medidas se mejorará la calidad de vida de las mujeres ancianas que viven solas y se introducirá un factor de corrección en los criterios de concesión de viviendas sociales y/o alquileres que priorice a las mujeres con cargas familiares. En el área de Educación se aboga por involucrar a los centros escolares en actividades desde una perspectiva coeducadora, de tal forma que el alumnado tome conciencia de su persona según sus capacidades, intereses, aptitudes y posibilidades sin limitaciones derivadas de los estereotipos de género. Asimismo, se promoverá el “Premio Coeduka” dirigido a los centros educativos que promuevan programas que fomenten la igualdad.

Por otro lado, el plan apuesta por la difusión de la producción cultural hecha por mujeres y/o sobre mujeres. Además, el Ayuntamiento garantizará un espacio para actividades organizadas por y para las mujeres en Kultur Leioa y se divulgará su participación en el desarrollo socioeconómico del municipio a través de ex-

posiciones. Otra idea es dar a conocer la aportación de aquellas mujeres de Leioa que hayan destacado por su relevancia histórica, incluyendo sus nombres en calles, plazas o edificios. En el área de Acción Social se potenciarán los servicios sociocomunitarios que cubren las necesidades personales y de las familias, así como de las mujeres y de cualquier grupo de población en desigualdad de oportunidades. Otro objetivo que se persigue es la creación y mantenimiento de los centros de acogida a mujeres víctimas de la violencia doméstica y/o agresiones sexuales, para lo que el Ayuntamiento aportará a la Diputación un piso de acogida y, si es necesario, se facilitará la movilidad geográfica de las mujeres afectadas y sus dependientes, garantizando así su seguridad física y psíquica. También se prevé firmar un convenio de colaboración con la Asociación “Andrak”, para posibilitar unas infraestructuras básicas. En el área de Salud se quiere promover la adquisición de hábitos saludables de vida y el auto-conocimiento, fomentando el interés de las mujeres por su propia salud. Para tal fin, se llevarán a cabo campañas de prevención sobre la anorexia, bulimia y sida. También se analizará acerca de hombres y mujeres en situación de soledad por el fallecimiento de su cónyuge y divorcios, de cara a facilitarles los recursos sociales necesarios. Desde el Ayuntamiento se apoyará, a través del centro de apoyo al empleo Behargintza, el desarrollo de iniciativas empresariales promovidas por mujeres y se impulsarán programas de fomento de empleo estable y de apoyo a la contratación de mujeres mayores de 45 años, menores de 30 años y desempleadas de larga duración. Se establecerán también contactos con el empresariado para garantizar una representación del 40% de hombres y mujeres en las prácticas realizadas en sus empresas. También se quieren desarrollar programas que favorezcan la inserción laboral de mujeres en situación o riesgo de exclusión social y módulos de “Preformación” dirigidos a mujeres con pocos recursos personales y sociales. ■

# Berdintasunaren **Planaren ekintzak**

Leioan onartutako planak udal esparru guztietan aldaketak ekarriko ditu emakumearen partehartze aktiboa areagotzen joateko benetako berdintasuna gauzatuz. Kirol arloan emakumezko talde berriak sortzearen aldeko ekimenak bultzatuko dira eta hirigintza arloan udalerriko planifikazioan emakumeen partehartzea sustatuko da. Familia barruan edozein motako arazoak dituzten emakumeak zein bakardadean bizi direnak laguntzak eta beharrezko baliabideak izango dituzte lan merkatuan sartzea errazteko eta, azken finean, bere bizitza kalitatea hobetzeko. Hezkuntza arloan, ekintza hezitzaileak antolatuko dituzte ikastetxeetan. Bestalde, garrantzi historikoa izan duten emakume leioarrak ezagutzera emango dituzte, herriko kaleetan, plazetan zein eraikinetan bere izena jarriz. Gizartekintza sailan, eraso sexualengatik edota etxeko biolentziagatik biktima diren emakumeak jasotzeko azpiegitura berezi bat sortuko dute. Bestalde, Andrak elkartearekin akordio bat adostea aurreikusi da bere ekimenak hobeto bideratzeko egoitza egoki bat izan dadin.

Behargintza zentroaren bitartez emakumeek egindako enpresa proiektuak bultzatuko dituzte. Lan arloari dagokionez, 45 urte gorakoentzat, 30 urte beherakoentzat eta langabezi luzean daudenentzat zuzenduta enplegu egonkorra sustatzeko programak bultzatuko dira. Giza baliabide eskasak dituzten emakumeentzat aurreformazioko ikastaroak antolatzeaz gain, Leioako Udalak lan merkatuan sartzeko ekimenak bilakatu nahi ditu gizartetik kanpo geratzeko arriskuan dauden emakumeen artean.

# Kalitate hezkuntza
## Txomin Aresti eskolarentzat

Iragan otsailaren 15ean, Txomin Aresti eskolak Kalitate Hezkuntza (Kalitatezko Kudeaketa Sistemaren ziurtagiria) jaso zuen Juan José Ibarretxe lehendakariaren eta Mª Angeles Iztueta hezkuntza sailburuaren eskutik, hezkuntza ikuskaritzak egindako ikuskaritza gaindu ostean.



Sistema hori jada instalatuta dago eskolan eta, horri esker, hainbat prozesuren bitartez, ikasle, familia eta irakasleen integrazioa errazten du, bai eta maila ezberdinetarako ezarritako gaiak nola irakatsi eta ebaluatu jakiteko jarraibideak ezarri, ikasten laguntzen duten jarduerak diseinatu eta ikasleen banakako segimendua egiteko modua azaltzen du, adostutako jarraibide zorrotzei jarraituz.

Txomin Aresti eskolak konpromisoa dauka etengabeko hobekuntzarekin eta, hemendik aurrera, hobetzeko ekipoak sortzeko beste prozesu batzuk abiaraziko dira bertan. ■

## El Área de Infancia y Juventud del Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Leioa organiza el **Curso de animación en el tiempo libre**

Leioako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Saileko Haur eta Gazteen Arloak, duela urte batzuetatik hona, ikastaroak eskaintzen dizkie bai zerbitzu honekin lankidetzan aritzen diren boluntarioei bai eta, elkarte eta aisialdiko taldeen bitartez, adingabeekin hezkuntza-lana garatzen dabiltzanei edo horretan hasi nahi dutenei ere.

Era berean, “Aisialdirako animazio ikastaroa” planteatu da eta, bertan, taldeetan parte hartu eta animatzeko zenbait teknika azaldu, hainbat dinamika egin eta boluntarioen eskubide eta betebeharrei buruzko alderdi teoriko eta praktikoak landuko dira. ■

**Ikastaroa honako egun hauetan emango da:**

- **Apirilaren 9a eta 23a eta maiatzaren 7a** (larunbatak dira)
- **Goizeko 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 15:30etik 18:30era.**

**Prestakuntzan izena emateko, ipini harremanetan Gizarte eta Hezkuntzan Esku-hartzeko Taldeko boluntarioak sustatu eta lehenengo mailako aurre hartzeko programen koordinatzailearekin, martxoaren 31n eta apirilaren 1ean 9:00etatik 13:00etara bitartean, edota apirilaren 4 eta 5ean 15:00etatik 18:00etara bitartean, GHET bulegoan (Sabino Arana kalea 67, etxabea).**

**Bestela, deitu 94 480 4660 telefono-zenbakira.**


CLÍNICA ESPECIALISTA
EN ORTODONCIA
Especialista:
L. Sánchez-Ruiz
Master Universitario en Ortodoncia
y Ortopedia Dentofacial
Ortodoncia infantil
Tratamiento de hábitos
Ortodoncia adultos
Ortodoncia estética
RPS: 58/03
Edificio IKEA ETXEA · Dptos.: 112-125 · Estartetxe nº 5 · 48940 LEIOA · Tel.: 944 316 746


PASTELERIA
GALDARETXE
GOZODENDA
PASTELERÍA · BOMBONERÍA · PANADERÍA
CONFITERÍA · HELADOS ARTESANOS · CHARCUTERÍA
PASTA FRESCA ITALIANA · FRUTOS SECOS
ANDRA MARI
Maidagan, 35
944 911 125
AREETA
Mayor, 17
944 647 729
LEIOA
Sabino Arana, 67
944 644 058
ALGORTA
Telletxe, 11
944 603 214

# 25 urte

**La Universidad del País Vasco, fruto de un importante movimiento social que se desarrolla simultaneamente a la reivindicación autonomista, ha cumplido un cuarto de siglo. Una institución pública que normaliza la consolidación de un autogobierno con la aspiración de ser una universidad competente y moderna.**

Euskal Herriko Unibertsitatea, aldarrikapen autonomisten garaietan garatu zen gizarte mugimendu handi baten fruitu dugu, eta dagoeneko mende laurden bat bete du. Herri erakunde honek autogobernua sendotzea eta unibertsitate moderno eta lehiakorra sortzeko asmoa uztartu zituen.

Baina orain, 25 urte ondoren, bereganatu du Euskal Herriko Unibertsitateak bere benetako izatea. Goi mailako hezkuntzaren arloan Euskal Herriko erakunderik nagusiena da; inguruko gizartearekin konpromisoa izan duena eta elkarbizitzarako eredu berria eraikitzeko bidean bidaide izan duena, alegia. Euskal Herriko Unibertsitateak konpromiso erabakigarria hartu du bere gain gure gizartean, euskal kulturaren erakusle handia baita, kultura hitza adierarik zabalenean ulertuta: goi mailako hezkuntza, zientziaren arloko ikerketa, arte sorkuntza eta hausnarketa intelektuala.

Hogeita bost urte hauetan Euskal Herriko Unibertsitateak jardunbide bikaina egin du arlo ugaritan. Inongo zalantza barik, unibertsitatearen dohainik handiena giza baliabideak dira. Gaur egun, Euskal Herriko Unibertsitateak hiru lurralde historikoetan ditu ikastegiak, eta guztiz errotuta dago guztietan. Joan den hamarkadaren amaieran UPV-EHUk maximo historikoak lortu zituen ikasle kopuruen aldetik. Azken urteotan unibertsitatean ikasteko sasoian zeuden lau ikasletik hiruk unibertsitate honetan egin ditu ikasketak. Hainbat aldaketarekin batera, beste honako hau gertatu da: gero eta handiagoa da emakumezkoen proportzioa ikasleen artean. Izan ere, gaur egun, Euskal Herriko Unibertsitateko hamar ikasletik sei ia emakumezkoak dira.

## Sin duda el mejor producto de la Universidad del País Vasco ha sido material humano.

Prestakuntza lanaz aparte, UPV-EHU Euskadiko ikerketa erakunde garrantzitsuena dugu eta Espainiako Estatuko erakundeak kontuan hartuta, bestalde, hamabosgarren dago. Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlariek gero eta dokumentu gehiago argitaratzen dituzte nazioarteko aldizkarietan.

Eta ez dugu ahaztu behar urteen joan-etorrian unibertsitateak asko zabaldu dituela nazioarteko harremanak. Horren guztiaren erakusle dugu truke programen babesean beste herrialde batzuetara doazen eta unibertsitate honetara datozen ikasleen kopurua. ■

# INMOBILIARIA Chomon




**Apartamentos · Pisos · Dúplex · Chalets**
**Adosados · Terrenos · Casas de campo**
**Lonjas · Oficinas · Negocios**
**Pabellones industriales · Etc.**

| **PORTUGALETE** | **BARAKALDO** | **LEIOA** | **BILBAO** (Rekalde) | **BILBAO** (Casco Viejo) |
|---|---|---|---|---|
| Pza. Gorbeamendi, 2 | El Ahorro, 10 | Estartetxe, 15 | Gordóniz, 86 | Belosticalle, 12 |
| 944 956 989 | 944 381 050 | 944 804 196 | 944 439 219 | 944 792 282 |

www.chomon.net

AENOR
Empresa Registrada
ER-1649/2/00

CERTIFIED IQNet QUALITY SYSTEM

**ALSA**

SERVICIOS

HEREDEROS DE CLAUDIO ALVAREZ SARRIA, S.L.

## SERVICIOS DE LIMPIEZA:

- Viaria
- Edificios, locales y colegios

(ESTOS SERVICIOS ESTÁN CERTIFICADOS)

---

**ALSA**

SERVICIOS

HEREDEROS DE CLAUDIO ALVAREZ SARRIA, S.L.

## SERVICIOS AL MEDIO AMBIENTE

- Venta de contenedores para:
  Recogida selectiva de pilas
  Recogida de tubos fluorescentes

Al servicio del Municipio de Leioa

*"Mantén limpio Leioa" · "Leioa garbi euki"*

C/Doctor Luis Bilbao Líbano, 10 · 2º B
48940 LEIOA (Bizkaia)

**Tels.: 944 636 400 / 944 636 870**
**Fax: 944 800 703**